

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Kirol edota gizarte jardueren antolaketa ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa behin betiko onartzea

Udalbatzak, 2018ko abenduaren 19ko bilkuran, kultura, kirol edota gizarte jardueren antolaketa ordaintzeko dirulaguntzen oinarriak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Erabaki hori jendaurrean egon den bitartean ez zen ordenantzaren aurkako alegaziorik aurkeztu. Hori dela-eta, erabaki hori behin betiko bihurtu da, halaxe xedatzen baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49 c) artikuluan.

Aipatutako 7/1985 Legearen 70.2 artikulua ezartzen duenari jarraituz, oso-osorik ematen da argitara onartutako ordenantza, eta argitaratzen denetik sartuko da indarrean.

Erabaki honen kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Goiko Epaitegiko Administrazioarekiko Auzietako Atalaren aurrean. Horretarako 2 hilabeteko epea egongo da iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua araber.

Hori guztia, egokituz jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahal izateari kalterik egin gabe.

KULTURA, KIROL EDOTA GIZARTE JARDUEREN ANTOLAKETA ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen bidez Zigoitiko udalerrian egiten diren kultura, kirol edota gizarte jardueren antolaketak eragiten dituen gastuak ordaintzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzen dira. Kanpoan geratuko dira, bere izaeratik, behar bezala arrazoituta, udalerritik kanpo egin behar direnak.

Diruz lagundutako jarduerak emakumeek eta gizonak aukera berdina izatea bultzatuko dute.

2. artikulua. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke:

– Irabazteko asmorik gabeko erakunde publikoak zein entitate pribatuak (kulturaren, kirolaren edo gizartearen arloetako elkarteak, taldeak eta fundazioak), baldin eta legez eratuta badaude eta Zigoitiko Udalerriko Elkarten Erregistroan inskribatuta badaude.

– Halaber, honako hauek ere izan daitezke dirulaguntzen onuradun: Zigoitiko udalerrian diharduten irabazteko asmorik gabeko entitateak, nahiz eta egoitza bertan ez eduki. Entitate hauek EAEko Elkarten Erregistro Orokorrean edo EAEko Kirol Entitateen Erregistroan egon behar dira inskribatuta.

– Zigoitiko udalerriko kontzejtuak.

Dirulaguntza eskatzen duten entitateek egunean eduki behar dituzte beren zerga bete-beharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eskaera aurkezten denean, bai prozesu osoan (dirulaguntza ematea eta ordaintzea).

Ezin izango dute onuradun izan, bertako kide izateko baldintza modura, edo beraien funtzionamenduan, sexua dela eta diskriminatzen duten elkarteek eta entitateek.

3. artikulua. Deialdiaren publikotasuna

Deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratuko da, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bitartez.

Eskaera aurkezteko epealdiak laburpena ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko dira.

4. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen programak

Zigoitiko udalerrien egiten diren kulturaren, euskararen, aisiaren eta kirolen inguruan egiten diren jarduerak jaso dezakete dirulaguntza, beren izaeragatik, eta behar bezala arrazoituta, udaletik kanpo egin behar direnak, izan ezik; lehentasuna emango zaie ondoko hauek bultzatzen dituzten programei:

- Gizarte ongizatea Zigoitiko udalerrian.
- Euskararen erabilera.
- Herritarrek parte hartzea.
- Udalerraren promozioa.
- Kultura eta kirola, oro har, eta bereziki bertakoa.

– Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta genero-rolen haustura bermatzen duten jarduera edota ekintzak, eta/edo pertsona behartsuenen edo gizartean baztertuta geratzeko arriskuan daudenen parte-hartzea bermatzen dituztenak.

- Herriko tradizioak berreskuratzea.
- Ingurumenarekiko sentsibilizazioa.

Diru-laguntzen ildo bakoitzerako, kulturarako eta kirolerako, eskatzaile bakoitzak bere jarduerak multzokatu beharko ditu honako programen barruan, eta, gehienez, lau aurkeztu ahal izango ditu:

– Urteko programak: Kolektibo baten urteko programak dira urte naturalean edo ikasturtean egindako jarduerak, oro har biztanleentzat direnak. Orokorrean, ez da urteko programatzat jotzen erakunde batek urtean zehar egindako ekitaldi ezberdinen batura. Horiek gainerako programa hauen barruan aurkeztu beharko dira.

- Eskola-kiroleko programak.
- Aisialdi-programak: ekitaldiak, festibalak, txapelketak, ibilaldiak, topaketak...
- Prestakuntza- eta sormen-programak: monografikoak, jardunaldiak, hitzaldiak.
- Ikerkuntza-, berreskuratze- eta hedatze-programak: argitalpenak, aldizkariak...

– Programa sozialak: udalaren laguntza espezifikorik jasotzen ez duten jarduerak, bizikidetzaren hobetzea helburu dutenak eta bizilagunekiko harremanari, lankidetzari eta integrazioari laguntzen diotenak.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Urteko programa edo proiektuetarako dirulaguntzen eskaerak aurkezteko epealdia urteko deialdian ezarriko da (eskaerarekin batera 6. artikuluan azaltzen den dokumentazioa aurkeztu behar da).

Jarduera edo programa puntual edo aparteko baterako eskaera hura hasi baino hilabete lehenago aurkeztu behar da. Nolanahi ere, urteko deialdian ezarriko da eskaerak aurkezteko gehieneko epealdia.

2. Eskaerak aurkezteko Zigoitiko Udalaren erregistrora joan daiteke edo, bestela, urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 16 artikuluan azaltzen dituen bideak erabil daitezke.

3. Dirulaguntza eskaera bat aurkezteak berekin dakar oinarri arautzaile hauetan ezartzen dena berariaz eta modu formalean onartzea.

6. artikulua. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Udalak emandako eskaera ofiziala. I. eranskina.
- Formulario ofiziala. Formulario bat bete beharko da programa bakoitzeko. II. eranskina (4 programa gehienez).
- Ordenanzaren 8. artikuluan ezarritako dirulaguntzak emateko irizpideak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
- Sozietate egoitza Zigoitiko udalerrian ez duten irabazteko asmorik gabeko entitateek (ez bestee) agiri hauek aurkeztu behar dituzte: estatutuen fotokopia eta legez eratuta eta EAEko Elkartearen Erregistro Orokorrean edo EAEko Kirol Entitateen Erregistroan inskribatuta daudela frogatzen duten agiriak.

Aurreko deialdiren batean agiriok aurkeztu dituztenek ez dituzte berriz aurkeztu beharko, estatutuetan ezer aldatu ez bada.

7. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

8. artikulua. Diru-laguntzak emateko irizpideak

Diru-laguntza emateko balorazio-irizpideak eta kopurua jartzea, entitate eskatzaileak emandako datuen arabera aplikatuko dira, diru-laguntzaren eskaerarekin eta gainerako dokumentazioarekin batera.

Laguntzen zenbatekoak puntuazio-baremo honen arabera finkatuko dira:

ERAKUNDEAREN KOMUNITATE-PARTAIETZA DEIALDIAREN AURREKO URTEAN	PUNTUAK
Kultura-kontseiluan parte hartzen du.	3
Udal programetan laguntzen du: Eguzki jaia, Olentzero, S. Juan, etabar. Zeinetan eta nola, zehaztu	3

PROGRAMENTZAKO BAREMOAK	
PROGRAMAN PARTE HARTUTAKO PERTSONAK	PUNTUAK
10 partaide arte	4
11 eta 25 partaide artean	8
26 eta 40 partaide artean	10
41 partaide baino gehiago	15

Partaidetza-baremoak, herritarrei, edo jardueraren helburu den herritarren sektoreari, irekitako jardueri soilik emango dizkie puntuak.

PROGRAMAREN BERRIKUNTZA	PUNTUAK
Programa berritzailea gehienez	10

EUSKARA	PUNTOS
Programak euskaraz	6
Programa berean, jarduerak hizkuntza desberdinetan egiten badira, 0,5 puntu emango dira euskaraz egindako jarduera bakoitzari, 3 puntu gehienez.	

GENERO IKUSPEGIA	PUNTUAK
genero-estertipoen haustura sustatzen duten jarduerak	3
Genero ikuspegiarekin egindako azterketa duten duen programen planifikazioa. Justifikatzean, ebaluazio bat erantsi beharko da, ondorengo programazioak hobetzeko asmoarekin.	6

PROGRAMAREN IRAUPENA	PUNTUAK
5 egun baino gutxiagoko programak	5
6tik 10 egunera	10
11tik 20 egunera	20
21 egun baino gehiago	40

PROGRAMA AUTOFINANANTZAZIOA	PUNTUAK
Ehuneko 40 eta 50 artean	10
Ehuneko 51 eta 65 artean	20
Ehuneko 66a baino gehiago	40

PROGRAMAREN GASTU KONPUTAGARRIAK	PUNTUAK
1 eta 1.500 euro artean	8
1.501 eta 3.000 euro artean	15
3.001 eta 4.500 euro artean	25
4.001 eta 6.000 euro artean	32
6.001 eta 8.000 euro artean	42
8.001 eta 10.000 euro artean	55
10.001 eta 12.500 euro artean	68
12.501 euro baino gehiago	80

DIRULAGUNTZAN SARTZEN DIREN GASTU KONPUTAGARRIAK	EHUNEKOA
Arbitrajeak, begiraleak, hizlariak, gidariak	100
Alokairua: materiala, tokiak, eta abar.	100
Jarduketak, argitalpenak	100
Jardueraren berriazko aseguruak.	100
Anbulantzia, posta, tasak...	100
Sarrerak	100
Autobusak, taldeko garraioa, 16 eserlekutik gora (alokairua)	75
Material suntsikorra	75
Ostatua, hornidura	75
Garaikurrak, sariak.	30
Material inbentariagarria.	30

Ondoko gastu hauek ez dira sartzen dirulaguntzan:

- Otorduak, oro har.
- Parte hartzaileen eta antolatzaileen sariak.
- Entitatearen mantentze eta funtzionamendu gastu orokorrak.
- Antolaketa gastuak (sariak, soldatak, ...) eta protokolo gastuak.
- Auto partikularretan egindako joan-etorriak.
- Ostata, turismo irteeretan eta antzekoetan.
- Lizentzien eta federazio-aseguruen gastuak.
- Mendi-irtereei dagokienean, ez dira lagunduko ondorengo ekintzak: abentura-kirola, hurreratze-trekkinga eta agentzia espezializatuek antolatutakoak eta proposatuakoak.

– Fakturen bidez frogatu ezin diren gastuak (justifikatzeko modua: 12.2 artikulua).

Dirulaguntzan sar daitezke kartelek, programek eta publizitateak eragiten dituzten gastuak, baldin eta Udalak onartutako hizkuntza irizpideak betetzen badira (bi hizkuntzetan egin behar dira).

9. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoa

1. Erakunde eskatzaile bakoitzari dagokion diru-laguntzaren kopurua zehazteko prozedura honakoa izango da:

Lehenengoa: eskaerak aztertuko dira, balorazio-irizpide objektiboen arabera, eta programa bakoitzari esleitutako puntu kopurua gehituko zaio.

Bigarrena: Kultura edo kirol arlorako diru-laguntza lerroari egokitutako aurrekontu-kreditua zatituko da aurkeztutako eskaeren puntu kopuru osoaren arabera; horrela, puntu-tipoaren balio ekonomika lortuko dugu eta, eskatzaile bakoitzak jasotako puntuekin biderkatuta, bakoitzari dagokion diru-laguntzaren proposamena aterako da.

Operazio horien ondorioz, diruz lagungarri den jardueraren defizit erreala baino kopuru handiagoa ateratzen bada, diru-laguntzaren behin betiko proposamena defizitari egokitutakoa izango da, hau da, eskatzaile bakoitzari dagokion gehieneko kopurua ez da inoiz ere jardueraren defizita baino handiagoa izango, aurreikusitako jarduerak antolaketarako behar dituen gastuak eta sortzen dituen edozein motatako diru-sarrerak kontuan hartuta.

Behin aipatutako parametroak aplikatu ondoren, aurrekontuaren esleipen ekonomikoa gaintzen bada, proportzionalki gutxituko zaio ehuneko eskaera bakoitzari, diru-laguntza lerro bakoitzari egokitutako kopuruarekin bat egin arte.

2. Udalak ematen duen dirulaguntzaren zenbatekoa programaren guztirako kostuaren ehuneko 80 izango da gehienez.

Hala ere, Udalak izapidetza berezia eman ahal izango die udalerrarentzat interes berezikoak diren programa batzuei, eta programa horietarako eragiten duten kostuaren ehuneko 100eko dirulaguntza eman ahal izango du.

3. Dirulaguntzen guztirako zenbatekoa inolaz ere ezin da izan Zigoitiko Udalak aurrekontu orokorrean xede horietarako partidetan ezarritako kopurua baino gehiago.

Dirulaguntza hauek ordaintzeko erabiliko den udal aurrekontuko partidan gerakinik gertatuz gero, hura likidatzeko erabakia emango du organo eskudunak, eta beraren bidez geratzen den dirua hainbanatuko da, oinarri hauetan ezartzen diren prozedura, ehuneko eta muga berak aplikatuz.

4. Proiektua finantzatzeko beste erakunde baten laguntzaren bat jaso dela edo bestelako sarreraren bat erabili dela jakinez gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, gastuen eta sarreraren behin betiko likidazioaren emaitzako defizita estaltzen duen zenbatekoa izan dadin.

10. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozeduran eskumena duten organoak

10.1. Espedientea instruitzeko eskumena daukan organoa eta ebazpena emateko eskumena daukana.

Espedientea instruitzeko eskumena daukan organoa kulturaren arloko zinegotzitza da.

Ebazpena emateko eskumena alkatetzak dauka; aurretik ezinbestekoa da kontuen, bilkure-tako gaiak prestatzeko eta Gobernuaren kudeaketari buruzko informazioa emateko batzorde bereziak aldeko irizpena ematea.

10.2. Aztertzea eta ebaztea.

Espedientearen instrukzioan lan hauek egingo dira:

- Ebazpena emateko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatu, besteak beste kulturako teknikariei eta idazkari kontuhartzaileari.
- Eskaerak ebaluatu, oinarri arautzaile hauetan baloraziorako finkatzen diren irizpideak aplikatuz.

Eskaerak aztertu ondoren espedientea kontuen, bilkuretako gaiak prestatzeko eta Gobernuaren kudeaketari buruzko informazioa emateko batzorde bereziari helaraziko zaio, txostena egin dezan.

Espedientea eta kide anitzeko organoak egindako txostena aztertutakoan organo instruktoreak behin betiko ebazpena proposatuko du: zer eskatzaileri eman behar zaien dirulaguntza, dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa, ebazpenerako egin den ebaluazioa eta horretarako erabili diren irizpideak.

Alkatetzak dirulaguntzak emateko ebazpena emango du, arrazoiak azalduta. Ebazpenean hau egin behar da gutxienez: dirulaguntza nori ematen zaion eta nori ukatzen zaion zehaztu.

4 hileko epealdia egongo da ebazpena emateko, eskaerak aurkezteko epealdia amaitzen denetik aurrera. Ebazpena epealdi horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo behar da.

Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Beraz, berorren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke administrazio auzietarako epaitegi nagusietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideetarako jurisdikzioa arautzen duenak, 8,1.c) artikuluan xedatzen duenaren ildotik. Horretarako bi hilabete izango dira ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Horren aurretik, gainera, errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Zigoitiko Udaleko alkatetzari, hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 116. eta 117. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorritik (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak finkatzen duen testua).

11. artikulua. Justifikazioa egiteko epealdia

Diru-laguntzaren erakunde onuradunek deialdiaren urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 31ra arteko, edo kontzesioaren ebazpenak ezartzen duen datara arteko epea izango dute, hurrengo oinarrian zehazten den dokumentazioa aurkezteko, justifikazioa egiteko helburuarekin.

Ohikoak ez diren programetarako, eta noizbehinkako jardueretarako, erakunde onuradunek justifikazio-dokumentuak aurkeztu beharko dituzte, jarduera egin ondoren kontatzen hasi eta bi hilabeteko epearen barruan.

12. artikulua. Entitate onuradunek aurkeztu beharreko frogagiriak

1. Memoria-likidazioa (eredua udal bulegoetan eska daiteke); datu hauek adierazi behar dira:

- Jarduera: helburuen deskribapena eta ebaluazioa, giza baliabideak eta erabilitako materialak, jarduera gauzatu den lekua, denboralizazioa (datak, orduak),...
- Hala badagokio, genero-berdintasunaren helburuak lortzeko jardueraren edukiaren analisia eta ebaluazioa.
- Hala badagokio, jarduera euskaraz garatu izanaren egiaztagiria.
- Hala badagokio, udal programetan parte hartu izanaren egiaztagiria.
- Parte-hartzaile kopuruaren egiaztagiria, sexuaren arabera banatuta.

- Likidazio ekonomikoa: zehaztu gastuak eta sarrerak.
- Programan parte hartzea sustatzeko egindako zabalkunde publikoa egiaztatzen duen dokumentazioa.

Ez dira diruz lagungarri izango publiko orokorrari zuzendutako jarduerak, ez badute programaren eskaintza iragarri izana egiaztatzen.

2. Dirulaguntzan sartzen diren gastuen frogagiriak: fakturen kopia eta ordaindu izanaren egiaztagiria.

Gastuak frogatzeko ez dira onartuko ondoko datuak argi eta garbi ezarrita ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak eta gainerakoak:

- Emaila: izena edo sozietatearen izena, eta NAN edo IFZ.
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (dirulaguntza jaso duen entitatea izan behar da).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZa: aplikatutako zerga tasa(k).

Gastuen frogagiriak zortzigarren oinarrian azaltzen diren gastu konputagarrien kontzeptuen arabera antolatu eta multzokatu behar dira.

3. Programen aleak eta, argitalpenak; Zigoitiko Udalaren babesaren aipamena eduki behar dute.

13. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

– Urteko programak: diru-laguntza ematen duen ebazpenean haren zenbatekoaren ehuneko 80 aurrez ordaintzea onartuko da. Gainerakoa gastuak frogatu eta egindako jardueren memoria aurkeztu ondoren emango da.

– Ezohiko programak eta jarduera puntualak: dirulaguntza gastuak frogatu eta egindako jardueraren memoria-likidazioa aurkeztutakoan ordainduko da, jarduera amaitzen denetik 2 hilabete pasatu baino lehen.

14. artikulua. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, hura emateko erabakia ere aldatu ahal izango da.

15. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauekin batera beste laguntza edo dirulaguntza batzuk ere eskura daitezke.

Udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik zein beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batzuek emandako laguntza zein dirulaguntzekin bat eginda, ezin da izan inolaz ere onuradunak egindako jardueraren kostua baino gehiago.

16. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, 37. artikuluan arautzen dituen kasuetako bat gertatuz gero, onuradunak jasotako diru kopurua itzuli beharko du, eta gainera berandutze interesak ordaindu beharko ditu, hain zuzen ere dirulaguntza jaso duenetik dirua itzuli beharra ezarri arte sortutakoak.

17. artikulua. Onuradunen iragarki-betebeharrak

Pertsona onuradunek jasotzen dituzten dirulaguntzen berri eman behar dute, abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, ezartzen duen bezala.

Entitate pribatu batek urtebetean jasotako dirulaguntza publikoen zenbatekoa 100.000 euro baino gehiago bada edo urtebetean lortutako sarreraren ehuneko 40 edo gehiago laguntza edo dirulaguntza publikoak badira (5.000 euro gutxienez), aldian-aldian jasotako dirulaguntzei buruzko informazio eguneratua (zenbatekoa, xedea edo helburua, onuradunak) argitaratu behar du bere egoitza elektronikoan edo web orrian.

Interes sozial edo kultureko helburuak besterik ez dituen irabazteko asmorik gabeko entitate baten aurrekontua 50.000 eurotik beherakoa bada, bitarteko elektronikoak erabili ahal izango ditu publikotasun betebeharrak betetzeko, hain zuzen ere jasotzen dituen laguntza edo dirulaguntza publiko gehienak ematen dizkion administrazio publikoak beraren esku jartzen dituenak.

18. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, kontuen, bilkuretako gaiak prestatzeko eta Gobernuaren kudeaketari buruzko informazioa emateko batzorde bereziak eta langile tekniko egokiak txostenak egin eta gero.

19. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko administrazioko arau hausteak dira azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, IV. tituluan aipatzen dituen egiteak eta ez-egiteak.

20. artikulua. Legeria osagarria

Oinarri hauetan xedatzen ez den guztirako, ondoko hauek hartuko dira kontuan: azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena; eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartzen duena.

I. ERANSKINA

KULTUR, KIROL EDO ETA GIZARTE PROGRAMENTZAKO DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEA

ESKARIA AURKEZTEN DUEN PERTSONA EDO ENTITATEA

Elkartea	IFK		
Ordezkarria (presidentea, edo ordezkari legala bakarrik)	NAN/AIZ		
Bazkide edo kirolkideak			
Kontu zenbakia			
Kalea	Zk	Solairua	Herria
Posta-Kodea	Udalerrria	Lurraldea	
Posta elektronikoa	Telefono zk.	Mugikorrenaren zk.	

DEKLARATZEN DUT

- Zigoitiko Udalari baimena ematen diot, eskumena duten administrazioei eska diezazkien zerga-betebeharrei eta gizarte segurantzari buruzko datuak, prozedura honen eskakizunak betetzen ditudala egiaztatzeko helburuarekin bakarrik.
- Ez dudala beste erakunde publiko edo pribatu batzuei kontzeptu beragatik dirulaguntzarik eskatu.
- Kontzeptu horregatik _____ euroko dirulaguntza jaso dudala _____.
- (honekin batera diru-laguntza emateari buruzko agiriaren kopia bidaltzen da)
- Kontzeptu beragatik dirulaguntza eskatu dudala eta gaurko egunean ez dela ebatzi.
- Aurreko urtean ondorengo udal programetan hartu nuela parte:

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA

- Egoitza soziala Zigoitiko udalerritik kanpora duten irabazi asmorik gabeko erakundeen kasuan bakarrik: Estatutuen fotokopia, eta Euskadiko Elkartea Erregistro Orokorrean edo Euskadiko Kirol Erakunde Erregistroan legez eraturta eta erregistratuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Dokumentazioa aurretik aurkeztua duten erakundeek ez dute berriro aurkeztu beharrik izango, aldaketaren bat izan dutenek eta menpeko toki erakundeak direnek salbu.
- Formulario ofiziala. Programa bakoitzeko formulario bana bete beharko
- Programaren izaera berritzailea egiaztatzen duen
- Programan genero-ikuspegia txertatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa

Sinadura

Izena:

Kargua (Ordezkarri legalak bakarrik):

NAN/AIZ:

DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Zigoitiko Udalak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak datuen fitxategi batean sartuko ditugula. Udal kudeaketak bere eskumeneren alorrean dituen zereginak ahalbidetzea da fitxategi horren xedea. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, Honako helbide honetara jo dezakezu: Zigoitiko Udala, Bengolarra Kalea n° 1 – 01138 – Ondategi (Araba)

II. ERANSKINA

FORMULARIOA	
	Ilundutako guneak idatzi gabe utzi
PROGRAMA (programaren izena jarri eta osatzen duten ekintzak zerrendatu)	
	Puntuak
Partehartzailen kopurua adierazi	
Kultura Kontseiluan parte hartzen du	
Udal programetan laguntzen du: Eguzki jaia, Olentzero, San Juan, bestelakoak. Esan zeinetan, eta nola	
Programaren izaera berritzailea. Hala dela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da	
Programa euskaraz da Hizkuntza bat baino gehiago erabiltzen den jarduerak aurkezten badira, adierazi zein diren euskaraz:	
Genero-estereotipoak haustea sustatzen duten jarduerak Metodologia	
Genero ikuspegiarekin egindako azterketa eransten duten programen planifikazioa. Planifikazioa aurkeztu beharko da	
Egunak edo jardunaldiak adierazi	

GASTU KONPUTAGARRIAK (puntuen kalkulua egiteko gastu konputagarriaren ehunekoa)			
Gastuak zehaztutako kontzeptuka adierazi (8. oinarriaren arabera)	Zenbatekoa	Ehunekoa	Konputagarria
A) Fitxak - kuotak- lizentziak		100	
B) Arbitroak, monitorea, hizlariak, gidariak		100	
C) Materiala alokatzea, lekuaren e.a.		100	
D) Ekitaldiak, argitalpenak		100	
E) Jardueraren berariazko aseguruak		100	
F) Anbulantzia, tasak,...		100	
G) Sarrerak (zehaztu)		100	
H) Autobusak, 16 plazatik gorako taldeko garraioa (alokairua)		75	
I) Material suntsikorra (zehaztu)		75	
J) Ostata, hornidura-gastuak (zehaztu)		75	
K) Garaikurrak		30	
L) Material inbentariakorra (zehaztu)		30	
GUZTIRA			
	Puntuak		

DIRUSARREREN AURREKONTUA

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Puntuak, autofinantzazioagatik	
PROGRAMAREN PUNTUAK, GUZTIRA	

Sinadura

Izena:

Kargua (Ordezkeri legalak bakarrik):

NAN/AIZ:

Ondategin, 2019ko otsailaren 28an

*Jarduneko alkatesa***NEREA TXURRUKA GARATE**